

## NERE LAGUN BATEN OBIAN.



Emen naukazu, eta emen nago,  
 Geiago egon nayeian,  
 Otoitz nereak ikusirikan  
 Banatzen zure gañean.  
 ¡Nere laguna! Maite ninduzun  
 Biotzetikan lurrean,  
 Zugan jarririk dauzkat begiyak,  
 Pentsamentuba zeruan.  
 Zure biziko udaberriyan  
 Jaunak eraman zinduan  
 Amaren gandik, lagunen gandik,  
 Penaz emen utzirikan.  
 Begiranazu goi ortatikan  
 Gaur nola etorri naizan,  
 Nabilelako beti bezela  
 Beti zu ikusi naian.  
 Nere gogoan ikusten zaitut  
 Inola asper eziñik,

Atzo bezela, alkaturikan,  
 Gañera iruriturik;  
 ¡A! Bañan gero itz egitean  
 Zure izenaz deiturik  
 Gertatutzenda nere ondoan  
 Gurutze beltz au bakarrik.  
 Ta zuriaren parian franko  
 Ikusten ditut jarriyak,  
 Diruritenak zelai batian  
 Lorien gisa aziyak.  
 ¡Zenbat penakiñ ote daude ¡bai!  
 Zenbat negarrez bustiyak!  
 . . . . .  
 . . . . .  
 Egunen batez baldin bagera  
 Alkartutzen gu Zeruan,  
 ¿Ez algerade maite izango  
 Giñan bezela munduan?

FRANZISKO LOPEZ ETA ALEN.

1088-garrego Apirillean.

